ULIAZPI

## "ULIAZPI FUNDAZIOA" FORU ERAKUNDE AUTONOMOA

ULIAZPI Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-desgaitasuna larria duten pertsonei arreta eskaintzea da, hainbat eratako zerbitzuak eskainiz, hala nola egoitzakoak, eguneko zentroa, aldi baterako egonaldiak, etxeko laguntza eta abar.

Uliazpiren eginkizuna zerbitzuak eta babesa eskaintzea da, Gipuzkoan adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea garatzen laguntzeko.

Gaur gaurkoz, Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:
- Etxebizitza.
- Eguneko arreta.
- Atsedena hartzeko edo aldi baterako egonaldiak.
- Laguntza teknikoa.

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan" oinarritua, eta horren bidez bizi kalitatearen dimentsio ugariak lehenesten eta zehazten dira (ongizate fisiko eta emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, hautatzea eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atseden zerbitzuak honako zentro hauen bitartez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk. (Bergaran), eta Egogain Zentroaren solairu bat ere erabiltzen da (Eibarren).

## "FUNDACIÓN ULIAZPI" ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, estancias temporales, apoyo en el hogar, etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias de Gipuzkoa.

Actualmente, los servicios que proporciona Uliazpi son:
- Vivienda.
- Atención de Día.
- Respiro o Estancias Temporales.
- Apoyo Técnico.

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una "planificación centrada en la persona" mediante la cual se prioriza y concentran las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones o inclusión social, elección y toma de decisiones…) en función de sus necesidades y preferencias.

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

ULIAZPI

**2024KO AURREKONTUAN EGINDAKO ALDAKETAK, 2023KOAREKIN ALDERATUZ**

**SARRERAK:**

- **3. Kapitulua: Tasak eta bestelako sarrerak**

2024ko aurrekontuak 2023koak baino 365.000 euro gehiago aurreikusten ditu. Alde batetik, erabiltzaileen prestazioak eguneratu egin direlako (ekarpenen kalkulu oinarria) eta, bestetik, behin-behineko egonaldiak areagotu egingo direla aurreikusten delako, adin txikiko plaza berriak sortu eta gazteen eguneko zentroak indartzearekin batera.

- **4. Kapitulua: Transferentzia arruntak Aldundia**

2024ko aurrekontuak 19.894.000 euroko zenbatekoa ezartzen du kapitulu honetan, 2023a baino % 4 gehiago.

Aipatu egin behar da bai 2023 eta bai 2024 urtetan kapitulu honetan ezarritako kopuruak ez direla nahikoak izango urtean zehar ohiko izaeraz sortuko diren gastu guztiak estaltzeko.

**- 5. Kapitulua: Ondare bidezko diru sarrerak**
Kapitulu honetan igoera aurreikusten da azken aurrekontuekiko, interes tasak aldatu direlako.

- **7. Kapitulua: Kapital transferentziak**
2024rako 941.000 euroko zuzkidura aurreikusten da inbertsioetarako, 2023an baino 46.000 euro gutxiago. Gastuei buruzko 6. Kapituluan aurreikusiriko inbertsio planei erantzuna ematen die zuzkidura horrek.

- **8. Kapitulua: Finantza-aktiboak**
2024rako ez da aldaketarik aurreikusi.

**MODIFICACIONES DEL PRESUPUESTO 2024 SOBRE EL 2023**

**INGRESOS:**

- **Capítulo 3: Tasas y otros ingresos**

El presupuesto del 2024 incorpora 365.000 euros más que en 2023, que obedece por una parte a la actualización de las prestaciones de las personas usuarias, base del cálculo de las aportaciones, y por otro por el aumento previsto de las estancias temporales, a la vez que se refuerza el centro de día de jóvenes y se aumentan plazas en menores.

- **Capítulo 4: Transferencias corrientes Diputación**

El presupuesto del 2024 contempla en este capítulo un importe de 19.894.000 euros, un 4% más que el 2023.

Cabe mencionar que la cifra consignada en este capítulo en los ejercicios 2023 y 2024 se prevé no sean suficientes para hacer frente a todos los gastos habituales y recurrentes que se generen.

- **Capítulo 5: Ingresos patrimoniales**
Prevemos en este capítulo un incremento sobre los últimos presupuestos, debido al cambio en los tipos de interés.

- **Capítulo 7**: **Transferencias de capital**
Para el 2024 se contempla una dotación para inversiones de 941.000 euros, 46.000 euros menos que el 2023 y que da respuesta al plan de inversiones previsto en el capítulo 6 de gastos.

- **Capítulo 8: Activos financieros**
No se han previsto cambios para el 2024.

ULIAZPI

**GASTUAK:**

- **1. Kapitulua: Pertsonalaren gastuak**

Kapitulu honen igoera 558.000 eurokoa da, eta bertan % 2,5eko soldata-igoera aurreikusi da.

- **2. Kapitulua: Ondasunak eta zerbitzuak**

Kapitulu honetan 687.000 euroko igoera aurreikusten da.

- **6. Kapitulua: Benetako inbertsioak**

2024rako kapitulu honen zenbatekoa 941.000 eurokoa da. Zenbateko horrekin, urtero jarri behar diren gauza berriez gain eta informatikako aplikazioen garapenaz gain, aurreikusten da ibilgailu batzuk ordezkatu behar direla, Donostia zentroko instalazioen ingurumeneko hobekutzak eta Zubieta zentroan aerotermia sistema ezartzeko obrak egin behar direla.

Donostia, 2023ko urria.

**GASTOS:**

- **Capítulo 1: Gastos de personal**

El incremento en este capítulo es de 558.000 euros, en el que se incluye una previsión de incremento salarial del 2,5%.

- **Capítulo 2: Bienes y servicios**

Este capítulo sufre un incremento de 687.000 euros.

- **Capítulo 6: Inversiones reales**

La cuantía en este capítulo para el 2024, es de 941.000 euros. Con este importe, además de las reposiciones que anualmente se deben de realizar, así como el desarrollo de las aplicaciones informáticas, contemplamos la sustitución de algunos vehículos, la mejora medioambiental de instalaciones del Centro Donostia y las obras para la incorporación de sistema de aerotermia en el centro Zubieta.

Donostia, octubre de 2023.